



**EGILE BERRIENTZAKO EUSKARAZKO LITERATUR LEHIAKETA 2017**

Iruñeko Udalak EGILE BERRIENDAKO 2017ko EUSKARAZKO LITERATUR LEHIAKETA deitzen du, norgehiagokako araubidean, Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (2006ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, otsailaren 17koan, argitaratua) xedatzen duenarekin bat.

**1.- XEDEA.-**

EGILE BERRIENTZAKO EUSKARAZKO LITERATUR LEHIAKETA 2017

Lehiaketa honen xedea da egile berriek egindako literatur lanik hoberenak saritzea.

Egileek lan bana aurkezten ahalko dute modalitate bakoitzeko. Idazlanek gai librea izanen dute, eta euskaraz idatziak izan beharko dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak.

**2.- SARI-MODALITATEAK.-**

Hona hemen sari-modalitateak:

Poesia, Narrazioa eta Bertso-paperak (bertsoak idatzita aurkeztu behar dira, bertsolaritzaren formazko arauekin bat).

Idazlanek honako luzera izanen dute:

Poesia: aurkeztu behar diren lanek 15 orri eduki behar dute gutxienez, alde bakar batetik idatziak eta espazio bikoitzaz mekanografiaturik.

Narrazioa: 15 orri, gutxienez, lerro artean tarte bikoitza utzirik eta bakarrik alde batetik mekanografiatuta. Bertso-paperak: gutxienez, 25 ahapaldi. (Elkarrekin batasuna osatzen duten gai ezberdinak gara daitezke, betiere bertsolaritzaren arau formalak betez).

**3.- DIRU-ZUZKIDURA.-**

Deialdi honi, gehienez ere, 13.000 euro esleituko zaizkio sarietarako, Udalaren Aurrekontuko honako partida hauen kargura:  
50/33500/48000

Sari hauek ezarri dira modalitate bakoitzerako, 2. klausulan adierazitakoaren arabera:

Lehen saria: 2.500 euro.

Bigarren saria: 1.000 euro.

Hirugarren saria: 500 euro.

Horretaz gain, epaimahaiak lau aipamen berezi ematen ahalko ditu, gehienez ere, kontuan hartu gabe lanak zein modalitatetan aurkeztu diren. Horiek 250 euroko saria jasoko dute, eta Udalak saritutako lanak argitara emanez gero, horiek ere jasoko dira argitalpenean.

Sariei esleitutako diru-kopuruei dagokien atxikipena aplikatuko zaie, PFEZ dela medio.

**4.- JARDUEREN BETEKIZUNAK.-**

Lehiaketan parte hartu ahalko dute nafar egileek edo nafarrak izan gabe, helbidea Nafarroan dutenek.



Haien izenpean literatur liburu bat baino gehiago argitaratu duten egileek ezin izanen dute lanik aurkeztu. Ez dira muga horren barnean sartuko aldizkarietan, kazetaritza-komunikabideetan edo izaera kolektiboko argitalpenetan argitaratutako parte-hartzeak edo kolaborazioak, ezta literatur lanen itzulpenak ere.

Lehiaketa honetako aurreko bi edizioetan modalitate berean lehen saria jaso dutenek ezin izanen dute berriz parte hartu modalitate horretan.

Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza hauen izaera berezia dela-eta onuradunei arau horretan ezarritako debekua aplikatu beharrekoa da:  BAI  EZ

### **5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK, ZEIN EPETAN ETA NON.-**

LAN BAKOITZEKO 5 KOPIA AURKEZTUKO DIRA GUTUN-AZAL ITXI BATEN BARRUAN, IZENORDE BATEKIN SINATURIK ETA ARGI ADIERAZITA ZEIN MODALITATETARA AURKEZTEN DEN. GUTUN-AZALAREN KANPOKO ALDEAN, HONAKO TESTU HAU IDATZI BEHAR DA:

EGILE BERRIENTZAKO EUSKARAZKO LITERATUR LEHIAKETA. 2017. URTEA.

MODALITATEA: .....

LANAREN IZENBURUA:

EGILEAREN IKURRITZA EDO IZENORDEA:

GUTUN-AZAL HORREN BARNEAN, BESTE GUTUN-AZAL BAT SARTUKO DA, ITXITA ETA KANPO ALDEAN EGILEAREN IZENORDEA IDATZITA ERAMANEN DUENA, ETA HORREN BARNEALDEAN, ORRI BAT, EGILEAREN DATU HAUEK ADIERAZITA: IZENA ETA BI ABIZEN, HELBIDEA, TELEFONOA ETA HELBIDE ELEKTRONIKOA, HORIEK GUZTIAK ERABILITAKO IZENGOITIARI ERREFERENTZIA EGINIK. BALDIN ETA LAN BATEAN EZ BADIRA EGILEAREN DATUAK BEHAR BEZALA EMATEN, LANA EZIN IZANEN DA LEHIAKETAN ONARTU.

**Lanak honako toki hauetan aurkeztu ahal dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kondestablearen jauregia - Kale Nagusia 2, behe) edo erregistro osagarrietan (Descalzos k. 72, 2. solairua; Iratxeko monasterioaren k. 2, behe; Armada etorbidea 2, 5. solairua; Zapatería k. 40, behe; Eslava k. 1, behe).**

Halaber, beste edozein bide erabiltzen ahalko da lanak aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen arteen.

Lanak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik aurrera hasiko da, eta 2017ko azaroaren 6an amaituko.

Saririk jasotzen ez duten lanak Udalaren bulegoetan berreskuratu ahal izango dira, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igarota, Udalak suntsitu egin ahalko ditu jaso ez diren lanak, betiere ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu ez bada.

### **6.- EPAIMAHAIA.-**

Epaimahaia Iruñeko Udalak izendatu du, eta honako hauek osatuko dute:

- Lehendakaritza: Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Zinegotzi Ordezkaria.



- Epaimahaikideak: Hiru literatur aditu, horietako bat, Nafarroako Bertsozale Elkartek proposatuta.
- Idazkaria: Iruñeko Udaleko euskara koordinatzailea edo horren teknikari baliokidea, zeinak hitza eta botoa izanen baitu epaimahaiaren deliberoetan.

Saria emateko proposamena organo eskudunari aurkeztuko zaio, hau da, Iruñeko Udaleko Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko zinegotzi ordezkariari, horrek proposamenaren gainean ebatz dezan. Modalitate guztietan, edozein sari eman gabe utzi ahal izango da, baldin eta epaimahaiaren iritziz ezin lanek ez badu behar adinako meriturik edo kalitaterik.

Epaimahaiak accesiten bat proposatzeko aukera:  BAI  EZ

**Epaimahaiak eman gabe uzten ahalko ditu aurreikusitako sariak oro edo horietako batzuk.**

**Epaimahaiak hala erabakitzen badu, sariak ex-aequo eman ahalko zaizkie hainbat lani, halako eran non saria egile horien artean hainbanatuko baita.**

#### **7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.-**

Jasotako izaera pertsonaleko datuak babestu egingen dira, Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duen Erregelamendua onetsi zuen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat. Aipatu Lege Organikoan xedatutakoa betez, deialdi honetan jasotako datu pertsonalak sari hauek kudeatzeko baino ez dira erabiliko, eta Iruñeko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan bildu ahalko dira. Hain zuzen ere, Iruñeko Udalari zuzenduta gauzatzen ahalko da datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubidea, Erregistro Orokorrera joaz. Lehiaketa hau egin bitartean jasotako irudirik erabiltzeko, beharrezkoa izanen da interesdunek aldeztu aurretik baimena sinatzea.

#### **8.- EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA.-**

Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina hasiko da kontatzen.

Instrukzio-organoa lehiaketa hau kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa izango da.

Sariak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitakoarekin bat.

Diru-laguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra:  BAI  EZ

Baiezkoa bada, non argitaratu:

Iruñeko Udalaren ediktu-taula.

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Diru-laguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako diru-laguntzen gaineko ebazpenei buruz.



### **9 - KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.-**

Saria ordainduta, Iruñeko Udalak egilearengandik eskuratuko du saritutako obra argitaratzeko aukera, beretako bakarrik eta lehiaketaren epaia onesten duen udal-ebazpena noiz eman eta hurrengo bi urteetarako. Eskubidea izanen du, baita ere, lana gaur ezaguna den edo geroan asma daitekeen beste edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ezin ukituzkotan aurkezteko. Horrek barne hartzen ditu ustiatzeko modalitateak oro, hau da, lana edozein euskarri edo formatutan erreproduzitzekoa, eta horien artean, bereziki, liburu batean edo euskarri digital edo zenbakizkoan edizioa egitekoa, baita lana banatzeko eta jendaurrean paratzeko eskubideak ere, mundu osoko merkatuan ustiatzeari begira. Eskubide horien artean, berariaz daude sarturik hala lanak *online* igorri eta zabaltzea nola Internet erako sare digital elkarreragileetan eskura jartzea.

### **10.- ERREKURTSOAK.-**

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar parte-hartzaileek oinarriak onartu eta haiei men egitea.

Lehiaketa honen garapenaren eta oinarri hauen interpretazioaren inguruko gatazka oro organo emaileak ebartziko du.

Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka, errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.